Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Begoña Eskibel Arriola

Eskoriatza, Gipuzkoa (1925-2019)



Aurkibidea

Biografia



San Juan kalean jaioa. Mojetan ibili zen eskolan. Santa Agedako eta inauterietako ohiturak jasotzeko elkarrizketatu genuen, Mari Karmen Eraña lagunarekin batera. Eskoriatzako beste hainbat usadio ere kontatu zizkiguten.

Zintak

ESK-086

- **Proiektua**: Eskoriatzako ohiturak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Data**: 2014-07-22
- **Iraupena**: 90 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Santa Agedetan mutilak eskean; arropak

- **Erref**: ESK-086/004
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:01:15. **Bukatu**: 00:03:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:
Santa Agedetan zuriz janzten ziren, gerriko gorriarekin. Zapiak koloretakoak eramaten zituzten. Mutilak kantuan ibiltzen ziren etxerik etxe. Ondo kantatzen zuten. Gero aurreskua egiten zenean, gustuko mutilak dantzara ateratzeko zain egoten ziren. Etxeren batean norbait hil baldin bazen, etxe hartan errezatu egiten zen.

2. Santa Agedetan neskak dantzara irteteko zain

- **Erref**: ESK-086/006
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:03:20. **Bukatu**: 00:04:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:
Santa Agedetan neskak urduri egoten ziren, mutilek dantzara aterako ote zituzten, zain. Neskek ez zuten eskean parte hartzen. Dantzara ateratzen bazituzten, gero zerbait edatera joaten ziren tabernara. Normalean, gaseosa. Botilak nolakoak izaten ziren.

3. Markaide soinu-jotzailea bizikletan Arrasatetik

- **Erref**: ESK-086/008
- **Iraupena**: 0:02:12. **Hasi**: 00:05:40. **Bukatu**: 00:07:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:
Luzio Markaide soinu-jotzaile arrasatearra eta herriko txistulariak ibiltzen ziren Santa Ageda eskean ibiltzen ziren mutilekin. Markaide Musika Bandako zuzendaria zen. Bizikletan etortzen zen Arrasatetik. Beste soinu-jotzaile batzuk: Leteko soinu-jotzailea, Gonzalo Cina errioxarra, Gardoki.

4. San Pedro jai bereziak Gasparren etorrerarekin

- **Erref**: ESK-086/009
- **Iraupena**: 0:01:09. **Hasi**: 00:07:52. **Bukatu**: 00:09:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:
Lehen ez ziren hainbeste suziri botatzen. Gogoan dute San Pedro jai batzuetan bota zituztela, Gaspar zetorrela eta. Moto lasterketa egin zen eta neskak banderatxoekin egon ziren. Gizonak bizikletekin maristetara. Kontzejupean ardo zahagiak.

5. Garai batean soldadutza luzea

- **Erref**: ESK-086/015
- **Iraupena**: 0:02:26. **Hasi**: 00:11:58. **Bukatu**: 00:14:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Duela zenbait urte neskak ere hasi ziren Santa Ageda eskean parte hartzen. Ondo iruditzen zaie, gaur egun soldadutzarik ez dagoenez, denak direlako kintoak. Garai batean soldadutzara zihoazenei despedida egiten zitzaien. Batzuk negarrez joaten ziren. Denbora luzez egoten ziren soldadu. Asko Afrikara. Batzuetan andregaia herrian utzita. Begoñaren senargaia hiru urterako borondatez joan zen. Onuraren bat zuen borondatez joateak.

6. "Kukumarru"ak inauterietan I

- **Erref**: ESK-086/018
- **Iraupena**: 0:03:32. **Hasi**: 00:17:10. **Bukatu**: 00:20:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak

Laburpena:
Inauterietan "Kukumarruak" ibiltzen ziren, arropa zaharrekin jantzitako bi edo hiru mutil. Ezin izaten ziren komentuko gurutzearen azpitik pasatu, bekatua zelako. Txerrien puxikak gorde egiten ziren inauterietarako. "Kukumarru"ek jo egiten zituzten haiekin. Mendiolatik behera zakua buruan sartuta etortzen zen "Kukumarrua".

7. "Kukumarru"ak inauterietan II

- **Erref**: ESK-086/020
- **Iraupena**: 0:01:19. **Hasi**: 00:21:07. **Bukatu**: 00:22:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak

Laburpena:
"Kukumarru"ak umeen atzetik ibiltzen ziren korrika. Mojen komentuan ate handi bat zegoen gurutze handi batekin eta handik ezin ziren pasatu "Kukumarru"ak. Elizpera ere ezin ziren sartu, leku sakratua zen eta. Puxikak gogorrak izaten ziren eta ondo joz gero, min ematen zuten. Umeek zirikatu egiten zituzten.

8. Umetako jolasak: tortoloska, txirikiletan, pote-poteka...

- **Erref**: ESK-086/023
- **Iraupena**: 0:03:06. **Hasi**: 00:23:13. **Bukatu**: 00:26:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Umetako jolasak: tortoloska, soka-saltoan, txirikiletan, pote-poteka... Tortolosek lau alde izaten dituzte. Neska-mutilak elkarrekin ibiltzen ziren jolas batzuetan eta beste batzuetan neskak bakarrik. Udaran afalostean San Juan kaleko guztiak elkarrekin jolasean.

9. Alokatutako bizikletarekin ikasi zuten bizikletan ibiltzen

- **Erref**: ESK-086/024
- **Iraupena**: 0:01:21. **Hasi**: 00:26:19. **Bukatu**: 00:27:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:
Bizikleta alokairua zegoen herrian. Bizikleta txiki-txiki bat zeukan eta harekin ikasi zuten. Ez zen ibiltzen kotxerik. Harri-harrika jolasean ere errepidean ibiltzen ziren.

10. "Urdelardero" egunean eskolatik eskean

- **Erref**: ESK-086/025
- **Iraupena**: 0:02:19. **Hasi**: 00:27:40. **Bukatu**: 00:29:59

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak
- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:
Inauterietan, "Urdelardero" egunean, eskolatik joaten ziren etxerik etxe eskean irakaslearekin. Txorizoa, sagarra edo urdaia sartzen ziren zirian. Kantatu egiten zuten. Abestiaren letra. Ezer ematen ez zuenari zerbait esaten zitzaion, mespretxu gisa.

11. "Urdelardero" eguna; San Nikolasetan jaiotzarekin eskean

- **Erref**: ESK-086/027
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:30:23. **Bukatu**: 00:32:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:
"Urdelardero" egunean normal jantzita joaten ziren. Urritzarekin egindako ziriak etxean prestatzen zizkieten. Sagar zatiak, txorizoa, urdaia edo piku melatuak sartzen ziren zirian. Karameluak ere botatzen zizkieten. Gabonetan, San Nikolasetan, jaiotzarekin ibiltzen ziren umeak. Gero merienda egiten zuten.

12. San Juanetako ohiturak: sua, "txopua", bedeinkazioak...

- **Erref**: ESK-086/029
- **Iraupena**: 0:03:32. **Hasi**: 00:35:52. **Bukatu**: 00:39:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:
San Juanetako ohiturak: sua eta "txopua". Soldadu joan behar ziren mutilek ipintzen zuten "txopua" San Juan bezperan. San Juanetan erramuarekin eta loreekin egindako sorta bedeinkatu egiten zen eta gero gorde, hurrengo urteko sutara botatzeko. Bedeinkatutako gurutzeak ipintzen ziren ateetan. San Juan egunean ira botatzen zen etxe atarian. "Sakutia"ren (intsusa) lorea uretan eduki eta ur harekin San Juan egunean aurpegia garbitzea ona zela esaten zen.

13. Garizuman besoetakoari "karapaixua" eramateko ohitura

- **Erref**: ESK-086/032
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 00:41:13. **Bukatu**: 00:42:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:
Garizuman ama pontekoak "Karapaixua" eramaten zion besoetakoari. "Karapaixua" ogi bat izaten da, txorizoarekin eta arrautzekin. Batzuek sagarra ere ipintzen diote. Umea txikia zenean hasten ziren ohitura horrekin eta nagusitu arte jarraitzen zuten.

14. San Pedro jaiak zetozela eta... zenbat lan!

- **Erref**: ESK-086/034
- **Iraupena**: 0:02:31. **Hasi**: 00:42:47. **Bukatu**: 00:45:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Etxe barruko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:
San Pedro jaietan gonbidatu asko izaten zituzten. Ama oso goiz jaikitzen zela gogoratzen du Mari Karmenek. Begoñak, berriz, gauza on guztiak San Pedroetarako gordetzen zirela, gonbidatuentzat. Lan askoko sasoia izaten zen: belarrak sartu behar, artajorra... Eta, gainera, etxe osoa zuritzen zuten karearekin. Karobia ere bazegoen, baina, bestela, zakuak erosten ziren.

15. San Pedroetako zinta-lasterketa

- **Erref**: ESK-086/036
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 00:47:23. **Bukatu**: 00:48:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:
San Pedroetan bizikleta lasterketak egoten ziren eta baita zinta-lasterketak ere. Bizikletan joan eta zintzilik zeuden zinten aroan sartu behar zuten makila, zinta eskuratzeko. Gerora, zinten ordez beste arropa batzuk jartzen hasi ziren.

16. Blacidak haria egin eta Luis ehuleak ehuna I

- **Erref**: ESK-086/038
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:49:40. **Bukatu**: 00:50:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Lihoa (linua) eta ehuleak

Laburpena:
Gogoan dute herriko batek goruetan nola egiten zuen. Lehenbizi kardatu eta gero haria egin. Gero, hari harekin ehuna egiten zuen Luis ehuleak.

17. Blacidak haria egin eta Luis ehuleak ehuna II

- **Erref**: ESK-086/040
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 00:51:31. **Bukatu**: 00:53:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Lihoa (linua) eta ehuleak

Laburpena:
Luis ehuleak non zeukan lantokia. Ehuna egiteko makina zeukan. Goruetan egiten zuen emakumea: Blazida Balanzategi. Beraiek nagusia ikusten zuten, baina ez dakite zenbat urte izango zituen. Orduan emakumeak beltzez eta buruko zapiarekin janzten ziren. Baserrietan ere egingo zen goruetan. Artzainek artilearekin galtzerdiak egiten zituzten.

18. Artilezko koltxoiak, jo eta harrotu egin behar

- **Erref**: ESK-086/044
- **Iraupena**: 0:03:09. **Hasi**: 00:54:41. **Bukatu**: 00:57:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:
Udan lan egin behar izaten zen, negurako prestatzeko: koltxoiak garbitu, egurra eta ikatza ekarri... Koltxoiak artilezkoak. Azala garbitu eta eguzkitan edukitzen zituzten. Gero, makila batekin jo, harrotzeko. Herriko emakume batek koltxoiak jotzen zituen plazan.

19. Arropak astintzera garbitokira edo errekara; iturriak

- **Erref**: ESK-086/046
- **Iraupena**: 0:02:39. **Hasi**: 00:58:15. **Bukatu**: 01:00:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:
Bakoitzak bere arropak garbitzen zituen. Arropak etxean xaboitu eta garbitokira edo errekara astintzera. Ontziak bi lagunen artean eramaten zituzten. Ura hotza egoten zenez, batzuetan ur beroa eramaten zuten lapikoan. Etxean urik ez zeukatela ahizpak senargaia aurkitu arte dio Begoñak. Iturritik ur freskoa eramateko ohitura. Bi iturri zeuden: ur normala eta metal-ura.

20. Bedeinkazioak, umetatik jaso dituzten ohiturak

- **Erref**: ESK-086/047
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 01:00:54. **Bukatu**: 01:03:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:
Mari Karmenek beti edukitzen du ur bedeinkatua etxean. Pazko egunean bedeinkatzen da. Erramu egunean, erramu bedeinkatua. Etxea bedeinkatzeko erabiltzen ditu. Begoñak erramu berria ipintzen duenean, aurrekoa erre egiten du San Juanetan. Umetatik ezagutu dituzten ohiturak dira. Amandreak izaten zuen Jesusen Bihotzaren egutegia.

21. Su bedeinkatua

- **Erref**: ESK-086/048
- **Iraupena**: 0:00:59. **Hasi**: 01:03:24. **Bukatu**: 01:04:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:
Su bedeinkatua. Elizpean egiten zen lehen sua eta makilatxo bat eramaten zen etxera. Su berria. Uraren eta suaren bedeinkazioa batera egiten zen. Hauts eguna.

22. Mesedeetako mojen eskolan ibiliak

- **Erref**: ESK-086/052
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 01:06:10. **Bukatu**: 01:07:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:
Mari Karmen mojetan ibili zen eskolan lehenbizi eta gero plazako eskola publikoan. Mojak Berrizera eraman zituzten eta eskola itxita egon zen. Mesedeetako mojak ziren, klausurakoak.

23. Eskolak ematen zituzten mesedeetako mojak

- **Erref**: ESK-086/054
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 01:08:24. **Bukatu**: 01:09:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:
Kristau ikasbidea ondo ikasten zuten. Mojak ziren irakasleak eskolan. Izen batzuk aipatzen dituzte: sor Maria, Inmaculada, Mercedes... Gero moja berriak etorri ziren. Haiek eskola partikularrak ere ematen zituzten.

24. Klausurako mojekin harremana; kapera

- **Erref**: ESK-086/056
- **Iraupena**: 0:02:31. **Hasi**: 01:09:26. **Bukatu**: 01:11:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:
Mesedeetako mojen komentuko kapera nolakoa zen. Meza egoten zen. Mari Karmenen aitajaun-amandreak ondoan bizi ziren eta joera handi zuten. Amandreak fede handia zuen ama birjinarekin. Asentzio egunean 40 kredo errezatzera joaten ziren. Gizonek ez ikusteko, aurpegia estaltzen zuten klausurako mojek. Tornu bat zeukaten. Bisitak burdin-hesia tartean zela egiten zituzten.

25. Izarak nola konpontzen zituzten

- **Erref**: ESK-086/057
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 01:11:57. **Bukatu**: 01:13:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:
Mojen eskolan josten ere ikasten zuten. Garai batean izarei zatiak jartzen zitzaizkien apurtzen zirenean. Nolako konponketak egiten ziren. Galtzerdiak konpontzeko, "arrautza". Plantxa egin aurretik "errepasua" egiten zen.

26. Lau pezeta ordainduta, zinemara

- **Erref**: ESK-086/058
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 01:13:11. **Bukatu**: 01:14:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:
Mesedeetako mojak joan zirenean, kapera zegoen lekuan zinema jarri zuten. Nolako pelikulak botatzen zituzten. Zinemako langileek borondatez lan egiten zuten. Domeketan bost pezetako paga ematen zieten. Zinemak lau balio zituen; sobratzen zenarekin gaseosa edo kakahueteak.

27. Plazako eskola publikoan zine mutua on Antonio abadearekin

- **Erref**: ESK-086/060
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 01:14:28. **Bukatu**: 01:16:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:
Mari Karmenek 18 urte inguru zituela ipini zuten zinema. Aurretik plazako eskola publikoan jartzen zizkien pelikula mutuak on Antonio abadeak. Berak ematen zituen pelikularen inguruko azalpenak. Dotrina ondo ikasten zuenari txapa bat ematen zioten eta harekin merkeago izaten zuen zinea.

28. Euskarazko izenak debekatuta

- **Erref**: ESK-086/061
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 01:16:33. **Bukatu**: 01:17:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Eskolan ikasi zuten gaztelaniaz. Sasoi batean euskarazko izenak aldatu egin zizkietela azaltzen dute. Esaterako, aurretik Edurne zenari gero Nieves jarri zioten. Bolibar auzoan egon zen maistrak jo egiten omen zuen euskaraz egiteagatik.

29. Gutxik zeukaten irratia

- **Erref**: ESK-086/065
- **Iraupena**: 0:01:06. **Hasi**: 01:21:04. **Bukatu**: 01:22:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

Laburpena:
Mari Karmenek irratia nahi zuen. Aitajaunak agindu zion bi txahal jaiotzen baziren, bataren diruarekin irratia erosiko zutela, baina ez zen hala izan. Lehenengo irratiak. Irratiko nobelak. "Radio Pirenaica" entzuten zuten ezkutuan.

30. Trenean asko ibiliak; trenaren azken eguna

- **Erref**: ESK-086/067
- **Iraupena**: 0:02:32. **Hasi**: 01:23:09. **Bukatu**: 01:25:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak

• Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:
Mari Karmeni amak esaten zion gogoan zuela trena jarri zuten eguna. Gabon zahar egunean, trena azkenengoz pasa zenean, sirena jotzen pasa zen. Tristura handia eman zien. Jende asko ibiltzen zen trenean. Beraiek ere asko ibiltzen ziren. Batzuetan mutil guapoak ikustera ere joaten zirela aitortzen dute. "Bergaresa" autobusak. Trena zergatik kendu zuten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-11-27

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com